# SECCION AMENA.

## FORTUNEA.

Ibai baten ertzean etzunik bedartzan,
Mutill erdi mamo bat egoala lotan
Fortuneak joanda dirautsa onelan,
»Echakiat zelan lo or gelditu azan,
»Esango leukek gero (Fortuna gaiztoa)
»Errekara jausi ta or baintza itoa,
»Eta geyenez oi dok gizonen errua,
»Munduan eukitea okerren damua.»

## ASTOA TA CHARRIA.

Astoak eziñ iruntsi eban.
Charre gizen baten ona,
Bere artean tripak janagaz
Esaten joian onela:
—«Lanik baperez lo eta jolas,
»Zukoa naikoa janda,
»Zorioneko mundu onetan
»Bera legez bizi dana,
»Niretzat barriz makillakadak,
»Arree ta ostikadea;
»Lastoa jaki ta eroateko,
»Sendor aundi eskergea,
»Alan negarez daiola aurrera,
»Dantzu charri irrintzea,
»Begiraturik aldamenera
»Illten dabille tristea.»
Atzera diño asto ez gichi jakiñik,
Onetara badatoz gero atsegiñak,
Betoz makillakadak naiz izan samiñak.

F. ARRESE Y BEITIA.

## Iko MUTADI EDO ISITZAREN ASKANTZA.

(Página 7)

Milla millaka koroi ta pozaldi
Iztun-goi Mendiburu aundiari.